

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO UR PARTZUERGOA – CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA (LEHENGOTROPERAGAINEN UR PARTZUERGOA)

Estatutuen aldaketa

Troperagainen Ur Partzuergoaren batzar nagusiak 2018ko azaroaren 26an batzartu zen eta, bertaratutako kideen ahobatezkotasunez, izen zaharra aldatu eta "Arabako Ur Partzuergoa – Consorcio de Aguas de Álava" izena hartzea eta estatutuak aldatzea erabaki zuen. Estatu berriak honela idatzita geratu dira:

Aurkibidea

Hitzaurrea.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA XEDEAK.

1. artikulua. Partzuergoa eratzea eta egungo jabetza.
2. artikulua. Izena eta partzuergoaren egoitza.
3. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoak.
4. artikulua. Partzuergoaren lurralde eremua eta iraupena.
5. artikulua. Araubide juridikoa.
6. artikulua. Partzuergoaren helburuak.
7. artikulua. Ahalmenak.
8. artikulua. Zerbitzua kudeatzeko modua.
9. artikulua. Lankidetzaz zerbitzuak ematean.
10. artikulua. Hirigintza arloko lankidetzaz.
11. artikulua. Udal ordenantzak egokitzea.

II. KAPITULUA: GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA.

12. artikulua. Gobernu organoak.
13. artikulua. Batzarra.
14. artikulua. Partzuergoko kide diren erakundeetako ordezkarien hautaketa eta karguaren iraupena.
15. artikulua. Batzar nagusiaren bilkurak.
16. artikulua. Batzar nagusiaren deia eta aztergaien zerrenda.
17. artikulua. Batzar nagusiaren jardunbidea.
18. artikulua. Batzar nagusiaren eskudantziak.
19. artikulua. Gobernu batzordea.
20. artikulua. Gobernu batzordearen bilkurak.
21. artikulua. Gobernu batzordearen deia eta aztergaien zerrenda.

22. artikulua. Gobernu batzordearen jardunbidea.
 23. artikulua. Gobernu batzordearen eskudantziak.
 24. artikulua. Lurralde batzordeak.
 25. artikulua. Lurralde batzordeen bilkurak.
 26. artikulua. Lurralde batzordeen deia eta aztergaien zerrenda.
 27. artikulua. Lurralde batzordeen jardunbidea.
 28. artikulua. Lurralde batzordeen eskudantziak.
 29. artikulua. Partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea.
 30. artikulua. Partzuergoko Lehendakariaren eskudantziak.
 31. artikulua. Partzuergoko lehendakariordearen eskudantziak.
 32. artikulua. Zuzendari kudeatzailea.
 33. artikulua. Organo osagarriak.
- III. KAPITULUA: PARTZUERGOAREN OGASUNA.
34. artikulua. Partzuergoaren ogasuna.
 35. artikulua. Tarifak.
 36. artikulua. Tarifak ezartzeko irizpideak.
 37. artikulua. Tarifak ezartzea.
 38. artikulua. Administrazio kudeaketako unitatea.
 39. artikulua. Emaidza ekonomiko positiboen erabilera.
- IV. KAPITULUA: ONDAREA.
40. artikulua. Partzuergoaren ondarea.
- V. KAPITULUA: LANGILEAK.
41. artikulua. Langileak.
 42. artikulua. Idazkaria.
 43. artikulua. Kontu hartzailea.
- VI. KAPITULUA: KIDEAK ATXIKITZEA ETA BEREIZTEA.
44. artikulua. Kide berriak atxikitzea.
 45. artikulua. Kideak borondatez bereiztea.
 46. artikulua. Kideak ezinbestean bereiztea.
- VII. KAPITULUA: ESTATUTUAK ALDATZEA.
47. artikulua. Estatutuak aldatzea.
- VIII. KAPITULUA: PARTZUERGOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA.
48. artikulua. Partzuergoa desegitea.
 49. artikulua. Partzuergoa likidatzea.

I. KAPITULUA: IZAERA ETA XEDEAK

1. artikulua. Partzuergoa eratzea eta egungo jabetza

1. Armiñongo, Berantevillako, Erriberabeitiako eta Zanbranako udalek, eta Armiñongo, Berantevillako, Estavilloko, Lacervillako, Ozioko, Rivabellosako, Zabalateko eta Zanbranako kontzejuek, Arabako Foru Aldundiarekin batera, honako ur partzuergo hau osatzen dute, indarrean dagoen legeriak aitortzen dien ahalmenari jarraiki, partzuergoaren eskumeneko azpiegiturak eta zerbitzuak guztiak batera ezarri eta ustiatzeko, honako estatutu hauen seigarren artikuluan jasota dauden helburuak betetzeko xedez.

2. Partzuergoari beste erakunde batzuk atxikiz gero, ez da estatuturik aldatu behar izango.

3. Arabako Foru Aldundiaz gain, honako estatutu hauen 6. artikulua 2. atalean ageri diren zerbitzuetako batzuk egitez ematen dituzten kontzejuak eta udalak baino ezin izango zaizkio partzuergoari atxiki.

2. artikulua. Izena eta partzuergoaren egoitza

1. Partzuergoaren izena hauxe da: "Arabako Ur Partzuergoa – Consorcio de Aguas de Álava" izena aldatzeko, ez dira estatutuak aldatu behar izango.

2. Partzuergoaren egoitza ondoko helbidean egongo da: Foruak 11, 01213 Rivabellosa, Araba.

3. Dena dela, partzuergoak beste administrazio egoitza batzuk edo egoitza tekniko batzuk ezarri ahalko ditu lurralde historikoaren beste leku batzuetan.

3. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoak

1. Partzuergoa zuzenbide publikoko erakundea da, elkarte gisakoa eta borondatezkoa; administrazio publikoek eta, hala badagokio, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek osatzen dute, betiere lehenengoan xedeekin bat datozen interes publikoko helburuak betetzen badituzte.

2. Partzuergoak nortasun juridiko berekia eta berezitu dauka, eta bere helburuak lortzeko jarduteko gaitasun osoa du; beraz, ahalmena izango du era guztietako ondasunak erosi, eduki, aldarrikatu, trukatu, kargatu eta besterentzeko, kontratuak egiteko, estatutu hauetan ezartzen den zerbitzu publikoa eta gerora bere eskumenekotzat hartzen dituen zerbitzuak ezarri eta ustiatzeko, hitzmateko, ezarritako errekurtsioak aurkezteko, legeetan jasota dauden ekintzak egiteko, langileak kontratatzeko eta indarreko legeriaren arabera ematen zaizkion gainerako ahalmenak baliatzeko.

3. Partzuergoa osatzen duten erakundeek zeinek bere eskumena egikaritzeko du partzuergoaren beraren bidez, baina eskumenaren titulartasuna erakundeena izango da. Partzuergoak partzuergoko kide diren udalak eta kontzejuak ordezkatzeko ditu bere helburuak lortzeko, eta horretarako behar dituen ondasun eta eskubideen titularra izango da.

4. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 120 eta 124. Artikuluetan eta Eusko Legebiltzarraren apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 106. artikulua 5. atalean xedatzen denari jarraiki, honako partzuergo hau Arabako Foru Aldundiari atxikitzen zaio legez ezarritako ondorioetarako.

Atxikimenduan aldaketarik egoten bada, arrazoa edozein dela ere, partzuergoaren estatutuak aldatu egin beharko dira, gehienez ere, sei hilabeteko epean, atxikimendua aldatu zeneko aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo ekitaldia hasten denetik aurrera.

4. artikulua. Partzuergoaren lurralde eremua eta iraupena

1. Partzuergoaren lurralde eremua erakundea unean-unean osatzen duten kontzejuena izango da, partzuergoak ematen duen zerbitzuaren hartzaile edo onuradun badira, bai eta partzuergoaren zerbitzua ematen duten udalen udal mugartea ere, bi kasuetan, Arabako Lurralde Historikoaren barruan.

2. Partzuergoak erakundeei, pertsona fisikoei eta pertsona juridikoei eman ahalko die zerbitzua, nahiz eta partzuergoa ez osatu edo, partzuergoko kide izan arren, bigarrenak agindutako zerbitzuez kanpokoak jasotzeko, betiere hitzartutako zerbitzuak partzuergoa osatzen erakundeetako erabiltzaileentzat behar bezala eta eraginkortasunez beteko direla aurretiaz bermatzen bada.

3. Partzuergoa epe mugagabea eratzten da eta bere helburuak bete behar dituen artean iraungo du, lehendik zeuzkan jarduerak eta baliabideak helburuak betetzeko bat-batean ezin baliaturik geratu ezean, partzuergoa desegiteko inguruabar bereziak gertatu ezean edo lege ezarritako gutxieneko erakunde kopurua kideturik egon ezean.

5. artikulua. Lege araubidea

1. Partzuergoaren antolamenduak, jardunbideak eta lege araubideak honako estatutu haue-
tan eta ondoko manuetan ezarritakoei men egingo diete:

– 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa -118 eta 127. artikulua; 97. artikulua, likidazioari dagokionez; eta bederatzigarren xedapen gehigarria-

– 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, aplikatu beharreko araubide juridiko eta administrazio prozedurari dagokienez.

– Eusko Legebiltzarraren 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko toki erakundeena.

– Legeak garatzeko autonomia erkidegoko araudia eta foru araudia.

– Kode Zibilean sozietate zibilari buruz ezarritakoa, banantzeko, desegiteko, likidatzeko eta azkentzeko eskubidearen araubideari dagokionez.

– 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa.

– Zuzenbide osagarri gisa, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, eta 27/2013 Legea, abenduaren 21ekoa.

– Toki erakundeei aplika dakizkiekeen gainerako legezko eta arauzko xedapenak, eta uraren ziklo integralari lotutako zerbitzu publikoak emateari doazkion sektoreko xedapenak ere bai.

2. Batzar nagusiaren, gobernu batzordearen eta partzuergoko lehendakariaren ebazpenek administrazio bidea amaiaraziko dute.

3. Partzuergoko organoen erabakiak eta ebazpenak berehala betearazi beharrekoak izango dira, goragoko onarpena edo baimena behar denean izan ezik.

6. artikulua. Partzuergoaren helburuak

1. Partzuergoaren helburuak ondokoak dira: ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzu publikoen azpiegitura ezartzea eta horren ustiapena kudeatzea, esanahirik zabalenean, hori guztia baldintza egokietan eginda eta indarrean dagoen legeria betez.

2. Estatutu hauen ondorioetarako, partzuergoak uraren ziklo integralari zuzenean lotutako zerbitzuak emango ditu ondoko alderdiei dagokienez:

a. Ur hornidurari doazkion zerbitzuak, hau da, "adukzio" zerbitzuak (edo lehen mailako sareari lotutakoak) eta "banaketa" zerbitzuak (edo bigarren mailako sareari lotutako hornidura zerbitzuak) emango ditu.

a.1. Ur hornidura lehen mailako sarean, uraren goi hornidura edo adukzio zerbitzua: ura hartzea eta biltzea, garraiatzea, tratatzea eta bideratzea azken erabiltzaile handietaraino edo banaketa sareko andel edo tangetaraino.

a.2. Ur hornidura bigarren mailako sarean, uraren behe hornidura edo banaketa zerbitzua: lehen mailako sarean hornitutako ura andeletan biltzea eta banatzea azken erabiltzaileen instalazio pribatuekin (etxebizitzak, saltokiak, industriak eta gainerako establezimenduak) lotuta dauden hodian bidez.

b. Saneamenduari dagozkion zerbitzuak, besteak beste, "intertzeptazioa/arazketa" (saneamendua lehen mailako sarean) eta "estolda sarea" (saneamendua bigarren mailako sarean).

b.1. Saneamendua lehen mailako sarean edo intertzeptazio eta arazketa zerbitzuak: kolektore eta hodi biltzaile nagusiak (hots, estolda sarea hondakin uren araztegiekin lotzen dituztenak), arazketa sistemak (ura arazteko eta hondakinak kentzeko instalazio guztiak aintzat hartuta), eta hustubideak (araztutako ura ur ingurune hartzailera itzultzen dutenak).

b.2. Saneamendua bigarren mailako sarean edo estolda sarea: etxeko eta industriako hondakin urak eta euri ura jasotzen du etxeetako zein industrietako lotuneetatik edo estolda zulo eta hustulekueetatik eta lehen mailako saneamendu sarean isurtzen ditu edo, hala dagokionez, ur ingurune naturalean isurtzen ditu.

7. artikulua. Ahalmenak

1. Helburuak betetzeko, oro har, ondoko administrazio ahalmenak egikaritzea izango du partzuergoak, legez ezarritako baldintza-norainokoetan:

- a) Erregelamenduak ezartzeko eta bere burua antolatzeko ahalmena.
- b) Finantzak kudeatzeko eta tributuak ezartzeko ahalmena, baina azken kasu horretatik kendu behar da zergatzat hartzen diren tributuak ezartzeko ahalmena.
- c) Programazioa edo plangintza egiteko ahalmena.
- e) Legezkotasunaren presuntzioa eta egintzen bete beharrekotasuna.
- g) Egintzak eta akordioak ofizioz berrikusteko ahalmena.
- f) Desjabetzeko ahalmena.
- f) Nahitaez betearazteko eta zehatzeko ahalmenak.
- h) Ikertzeko, mugatzeko, maizterrak utzarazpen administratiboa bideratzeko eta ondasunak ofizioz berreskuratzeke ahalmenak.
- i) Bere ondasunak eta eskubideak enbargatzeko ezintasuna, bai eta toki ogasunaren kredituen hurrenkera eta lehentasuna eta gainerako eskubideak baliatzeko ahalmena, foru ogasunari eta estatukoari dagozkienei kalterik egin gabe.

2. Adibidez, zehatz-zehatz azalduta ez badago ere, partzuergoak ondokoak egin ahalko ditu:

- a) Indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen laguntza ekonomikoak eta teknikoak Europako administrazioari, estatukoari, autonomia erkidegokoari eta foru administrazioari eskatzea eta eskuratzea, bai eta administrazio horiekin guztiekin hitzartutako beste laguntza batzuk ere.
- b) Edateko ura biltzeko, banatzeko nahiz hornitzeko eta hondakin uren saneamendua, arazketa eta isurketa egiteko emakidak eta baimenak eskatzea eta eskuratzea.
- c) Hornidura eta saneamendua bideratzeko eta zerbitzuak ustiatzeko beharrezkoak diren inbertsioak finantzatzeko eragiketak egitea.
- d) Proiektuak prestatzea eta azpiegiturak ezartzeko eta mantentzeko obrak egitea, zeini dagokion planaren arabera.
- e) Hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzea.
- f) Ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuen tarifak ezartzea.
- g) Udal eta administrazio batzar interesdunen eskariz, kobrantzak kudeatzea.
- h) Tokiko sareetan, ur banaketa eta saneamendua bideratzeko aholkularitza teknikoaren ematea.
- i) Aurreko artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioz beharrezkoak liratekeen jarduketak guztiak gauzatzea.

j) Ordenantzak edo araudiak onartzea, partzuergoaren beraren jardunbidea erregulatzeko edo helburuetan agertzen diren zerbitzugintza arautzeko.

k) Partzuergoak ematen duen zerbitzuari doazkion proiektu eta jarduketa berariazkoak gauzatu eta interes publiko eta orokortzat jotzeko, desjabetze espedienteak izapidetu eta onartu ahalko ditu, legeak eginbide hori aitortzen dionean eta, nolana ere, beste administrazio batzuek izapidetu eta onar ditzatela eta, espedientean, partzuergoa onuradun izan dadila eskatu ahalko du.

l) Ur hornidurari eta saneamenduari lotutako beharrianak aztertzea eta egoki irizitako plan eta proiektu guztiak egitea.

8. artikulua. Kudeaketa modua

Partzuergoak zerbitzu horiek egin ahal izango ditu, bere burua antolatzeko duen ahalmena baliatuz, toki araubidearen inguruko legeriak zerbitzu publikoetarako ezartzen dituen kudeaketa moduetako edozein aukeratuta.

9. artikulua. Zerbitzuak ematean lankidetzan jardutea

Partzuergoak berak, kudeaketarako sortu ahal den erakundeak (edo erakundeek), eta partzuergoko kide diren erakunde publikoek, lehendakari, alkate eta ordezkarien bidez, batera jardungo dute zerbitzu hobek eskaintze aldera. Horretarako, beharrezko informazioa eta laguntza emango diote elkarri.

10. artikulua. Hirigintza arloko lankidetzak

1. Partzuergoak berak eta partzuergoko kide diren erakundeek hitzematzen dute elkarrekin lanean arituko direla, denei eragiten dieten hirigintzako gaiak dagokienez. Ondorio horietarako, udalek partzuergoari kontsulta egingo diote antolamenduko tresnak prestatzen edo aldatzen dituztenean, partzuergoari eragiten dioten alderdiei buruz.

2. Partzuergoko kide diren korporazioek, hirigintza proiektuak onartu baino lehen eta, nolana ere den, partzuergoak ematen dituen zerbitzuetan eragina duten jarduketei lotutako lizentziak eman baino lehen, partzuergoaren txostena eskatu beharko dute nahitaez, esandako proiektu edo jarduketan gainean. Txostenak dioena ez da loteslea izango.

3. Lurzorua eta zorupea erabiltzeko egintzak eta, partzuergoaren helburuak betetze aldera, eraikinak altxatzea eta instalazioak eraikitzea tokiko korporazioek egingo balituzte bezalakoak izango dira eta, horrenbestez, ez dute inolako zergarik ordaindu beharko.

11. artikulua. Udal ordenantzak egokitzea

1. Partzuergoko kide diren eta partzuergoaren eskumeneko gaiak arautzen dituen udalen eta administrazio batzarren ordenantzak partzuergoak berak onartutako ordenantza eta arau teknikoetara egokitu beharko dira, erakunde bakoitzaren ezaugarri berezietan kalterik egin gabe. Ondore horretarako toki erakunde horiek partzuergoak emandako xedapenak txertatuko dituzte beraien ordenantzetan.

II. KAPITULUA: GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOK

12. artikulua. Gobernu organoak

1. Partzuergoaren gobernua eta administrazioa ondoko organo hauen esku egongo dira:

Batzar nagusia.

Gobernu batzordea.

Lurralde batzordeak.

Lehendakaria.

Lehendakariordea.

2. Era berean, zuzendari kudeatzailea zuzendaritzako kidea da.

13. artikulua. Batzar Nagusia

1. Partzuergoaren gobernu eta administrazio organo gorena Batzar Nagusia da. Batzar Nagusiaren eskumenak estatutu hauetan ezarritakoak eta ordenamendu juridikoan onartzen diren gainerako guztiak dira.

2. Batzar Nagusiaren osarari gagozkiola, partzuergoko kide diren erakunde guztiek ordezkaria izango dute; botoak, berriz, beheko biztanle kopuruaren arabera haztatuko da (erakundeak zerbitzua ematen dien herritarren errolda).

0-200 biztanle,	1 boto
201-400 biztanle,	2 boto
401-700 biztanle,	3 boto
701-1.000 biztanle,	4 boto
1.001-2.000 biztanle,	6 boto
2.001-3.000 biztanle,	8 boto
3.001-4.000 biztanle,	10 boto
4.001-5.000 biztanle,	12 boto
5.001-7.000 biztanle,	15 boto
7.001-9.000 biztanle,	18 boto
9.001-11.000 biztanle,	21 boto
11.001-14.000 biztanle,	25 boto
14.001-17.000 biztanle,	29 boto
17.001-20.000 biztanle,	33 boto
20.001-24.000 biztanle,	38 boto
24.001-28.000 biztanle,	43 boto
28.001-32.000 biztanle,	48 boto

Udalerriei dagokienez, bertako boto kopurua haztatzeko xedez, aintzat hartuko da udalaren administrazioak, partzuergoaren bidez, zenbat herritarri ematen dion zerbitzua (jakina denez, kopuru hori ez da zertan udalerriko biztanle guztien kopuruaren berdina izan). Udal administrazioek emandako zerbitzuak giza kontsumoko uraren horniduraz edo saneamenduz bestekoak balira, boto bat izango dute.

Haztapena bider bi egingo da, partzuergoari eskatutako zerbitzuak hark ematen dituen guztiak badira (hau da, seigarren kapituluan ageri denez, uraren hornidura, saneamendua eta arazketa).

3. Ekitaldi bakoitzeko lehen batzar nagusia egin baino lehen, partzuergoa osatzen duten erakunde guztien errolda ofizialaren egiaztagiria eskatuko da, dena delako ekitaldiko urtarrilaren 1eko datuak adierazita, eta boto kopurua esleituko zaio erakunde bakoitzari, aurreko atalean (bigarreanean) ezarritako herritarren kopuruaren arabera. Boto esleipenak ekitaldian egiten diren batzar guztietan balio izango du.

4. Arabako Foru Aldundiaren boto haztatua guztizko boto kopuruaren herena (1/3) izango da beti eta, hortaz, kidetutako gainerako erakundeek (zenbat erakunde diren gorabehera) botoen beste bi herenak (2/3) izango dituzte.

14. artikulua. Partzuergoko erakundeen ordezkariak hautatzea eta ordezkari karguen iraupena

1. Ordezkaritza organo gorenek hautatu eta indargetu egingo dituzte partzuergoko kide diren ordezkariak, batzar nagusikoak, gobernu batzordekoak nahiz lurralde batzordeetakoak, ordezkariak ahalmena eskuordetzeko aukerari kalterik egin gabe.

2. Gainera, ordezkariaren ordezkoa izendatuko da, titularrak kargua galdu duenean, absente dagoenean edo gaixorik dagoenean jarduteko.

3. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraugiko da. Halako inguruabarretan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean jarraituko dute behin-behinekotasunez, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak horien ordezkoak izendatu arte.

15. artikulua. Batzar nagusiaren bilkurak

1. Batzar nagusiaren bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak eta presako bilkura ezohikoak.

2. Batzar nagusia urtean behin bilduko da gutxienez, lehendakariak deitutako ohiko bilkuran.

3. Batzar nagusiak egokiesten dituen ezohiko bilkura guztiak egin ahalko ditu, lehendakariaren ekimenez edo gutzizko botoen laurdena osatzen duten batzar nagusiko kideen idatzizko eskariz.

4. Bilkuretan, zuzendari kudeatzaileak eta tokiko gobernu batzordeko kideek parte hartuko dute, hitzarekin baina botorik gabe.

16. artikulua. Batzar nagusiaren deia eta aztergaien zerrenda

1. Batzarraren bilkura bakoitzaren deia behar besteko aurrerapenez egin behar da. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro beharko dira, presako bilkura ezohikoetan izan ezik, ordezkari guztiak bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten. Deian, bilkura noiz, zer ordutan eta non izango den adieraziko da, bai lehenengo deialdian bai bigarrenean, bai eta aztergaien zerrenda ere. Halaber, ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deia igortzen den egunetik aurrera.

2. Deia, aztergaien zerrenda eta onartu beharreko aurreko bilkuretako akten zirriborroak batzar nagusiko kideei jakinarazi behar zaizkie, hala nola partzuergoa osatzen duten erakundeen bidez, azkenek haien ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda aipatuko da, eta ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deialdia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahalko da, eta epe egokiaren zenbaketa igorpena egiten den egunaren hurrengotik hasiko da.

17. artikulua. Batzar nagusiaren jardunbidea

Batzar nagusiaren bilkurak baliodunak izan daitezzen, batzar nagusia osatzen eta hitza zein botoa duten kideen erdia eta bat gehiago bertaratu behar dira lehen deialdian, betiere horiek gutzizko boto haztatuaren herena osatzen badute. Bigarren deialdian –bilkuraren bigarren deialdia, gutxienez, lehenengo deialdia egiten denetik ordu erdira egin behar da–, nahikoa izango da gutzizko boto haztatuaren herena osatzen duten kideak bertaratzea, kideen kopurua gorabehera.

Nolanahi ere den, beharrezkoa da batzarreko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

2. Arau orokor legez, batzar nagusiaren erabakiak botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen boto haztatuaren baturaren gehiengo soiluz hartzen dira. Honako estatutu hauetan ezartzen den kasuetan, erabakiak gehiengo kualifikatuz hartu ahal izango dira. Kontrakoa adierazi ezean, gehiengo kualifikatua botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen boto haztatu guztien ehuneko jakin bat izango da.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan, toki erakundeen kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruz toki arauetan xedatzen dena aplikatuko da batzar nagusian.

4. Partzuergoko kide diren erakundeek partzuergoarekiko finantzaketa konpromisoak edo beste zeinahi konpromiso urratuko balute, erakunde horren jarduerak urraketen arabera egokitu edo moldatu beharko lirateke eta jarduerok murriztu edo eten ere egin litezke, halako eran non, urraketaren ondorioz, kide den erakundeak ezingo lukeen beste zorrik edo obligaziorik sortu.

5. Aurrekontuko jardueren kontratazioa, hasiera edo gauzapena ez da bideratuko baldin eta partzuergoko kide diren erakundeek egin beharreko ekarpenak edo konprometitutako zenbatekoak izanik, ordainduta ez badaude edo Zuzenbidez baliozkoa den edozein bide erabiliz, ordainketa partzuergoaren alde bermatuta ez badago.

18. artikulua. Batzar nagusiaren eskudantziak

a). Honako estatutu hauetan xedatutako eran hautaturiko gobernu batzordeko kideak eta lurralde batzordeetako kideak aldarrikatzea, bai eta partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea hautatzea, kontuen batzorde bereziko kideak eta kontratazio mahaikideak hautatzea.

b). Aurrekontua eta aurrekontua gauzatzeko oinarriak onartzea, bai eta kontu orokorra onartzea ere.

c). Partzuergoko kide berrien atxikipena onartzea eta atxikipenaren baldintza orokorrak eta bereziak onartzea. Lehendik kide zirenak bereizteko kasuetan, likidazio kontua eta gainerako balzidintzak onartzea.

d). Arroko erakundeetako ordezkariak partzuergoaren gobernu organoetan txerta daitezten onartzea.

e). Estatutuak aldatzea.

f). Partzuergoa azkentzea.

g). Ordenantzak eta araudiak onartzea. Aurrekoak gauzatzeko, batzar nagusiak erabaki ahalko du boto emateko eskubidea aldi baterako etetea edo erabakiak hartzeko parte hartzea etetea, baldin eta partzuergoko kide diren administrazioek edo erakundeek partzuergoarekiko betebeharrak urratzen badituzte, bereziki, partzuergoaren jarduerak finantzatzeko konpromisoei eta erregelamendu bidez ezarritako betebeharrei dagokienez.

Aldi baterako etenduraren ondorioa amaitu egingo da etenduraren arrazoa amaitzen denean.

h). Kudeatutako zerbitzuei doazkien tarifak eta zergak ezartzea eta finkatzea.

i). Ondasunak eta eskubideak eskuratzea eta besterentzea, eta horien gaineko transakzioa, baldin eta horien balioa aurrekontuko baliabide arrunten balioaren ehuneko hamarretik gorakoa denean.

j). Partzuergoaren inbertsio planak eta programak onartzea, aldatzea edo berrikustea.

k). Kredituen judizioz kanpo aitortzea, betiere aurrekontuko zuzkidurarik egon ezean eta, ekitaldi ekonomikoaren barruan metatutako zenbatekoari dagokionez, aurrekontuko baliabide arrunten balioaren ehuneko hamarretik gorako zenbatekoa duten kreditu eragiketak hitzartzea.

l). Ur hornidura eta saneamenduko tokiko sare edo bigarren mailako sareen kudeaketa adostea hala eskatzen duten kontzeju eta udalerriekin.

ll). Partzuergoak ematen dituen zerbitzuak kudeatzeko era onartzea.

m). Kontzeju edo udalerriei emateko beste zerbitzu batzuk onartzea.

n). Partzuergoaren xede orokorrak betetzeko eraginkortasuna sendotzen duten jarduera osagarri edo eratorrien gauzapena onartzea.

o). Partzuergoko kide ez diren erakundeekiko lankidetzak hitzarmenak onartzea.

p). Beste administrazio batzuek partzuergoari eskualdatutako edo haren esku utzitako ur arloko eskumenak onartzea.

q). Langileen plantilla eta horren aldaketak onartzea, lanpostuen zerrenda onartzea eta lanpostuei atxikitako lansarien zenbatekoa finkatzea.

r). Hitzarmen kolektiboak onartzea.

s). Egintza judizial eta administratiboak bideratzea eta partzuergoa defendatzea batzar nagusiaren eskumenerako gaietan. Halakoetan, beharrezko ordezkariak ahalordeak egilestea.

t). Batzar nagusiaren eskudantziak gobernu batzordearen, lehendakariaren edo zuzendari kudeatzailearen esku uztea.

u). Ohiko bilkuren aldizkakotasuna aldatzea.

v). Idazkaria eta kontu hartzailea izendatzea.

y). Partzuergoaren izena aldatzea.

v). Estatutuek batzar nagusiari berariaz aitortzen dizkion beste zeinahi eginkizun betetzea.

b), d), e), f), g), h), j), o), p) eta y) ataletan jasotako gaiei buruzko erabakiak hartzeko, guxtie-
nez, botoa emateko eskubidea duten eta batzar nagusian bertaratu diren kideen boto haztatuen
bi herenen aldeko boto kopurua beharko da.

3. Batzar nagusiak zuzendaritzako gainerako organoen esku utzi ahal izango ditu quorum
kualifikatuaren beharrik ez duten gaiak.

Gai jakin baten eta jarduketa jakin baten organo eskumendunaren inguruko arrazoizko
zalantzarik edo interpretatzeko beharrik izanez gero, batzar nagusiak ebatziko du. Hala, batzar
nagusiak erabakirik egokiena hartuko du bertaratutako kideen boto haztatuaren gehiengoa
dela bide.

19. artikulua. Gobernu batzordea

1. Lurralde batzordeetako lehendakariak, partzuergoko lehendakariak eta lehendakariordeak
eta Arabako Foru Aldundiak unean-unean izendatutako hiru ordezkari osatuko dute gobernu
batzordea. Partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea gobernu batzordeko lehendakaria
eta lehendakariordea izango dira.

Gobernu batzordeko kideren batek batzordean ordezkari bikoitza edukiz gero, ordezkari
bakarra hautatu beharko du, eta hutsik geratzen den kargua aurreko paragrafoan ezarritako
prozedurari jarraiki beteko da.

2. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean
iraungiko da. Halako inguruabarretan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean ja-
rraituko dute behin-behinekotasunez, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak horien
ordezkoak izendatu arte.

20. artikulua. Gobernu batzordearen bilkurak

1. Gobernu batzordearen bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak eta
presako bilkura ezohikoak.

2. Gobernu batzordea hilean behin batzartuko da, lehendakariaren ekimenez deitutako ohiko
bilkuran.

3. Gobernu batzordeak egokiesten dituen ezohiko bilkura guztiak egin ahalko ditu, lehen-
dakariaren ekimenez edo gutzizko botoen laurdena osatzen duten gobernu batzordeko kideen
idatzizko eskariz.

4. Zuzendari kudeatzaileak bilkuretan parte hartuko du, hitzarekin baina botorik gabe.

21. artikulua. Gobernu batzordearen deia eta aztergaien zerrenda

1. Gobernu batzordearen bilkuren deiak behar besteko aurrerapenez egin behar dira. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro beharko dira, presako bilkura ezohikoetan izan ezik, ordezkari guztiek bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

2. Deialdia, aztertuko diren gai zerrenda eta onartu beharreko aurreko bilkuren akten zirriborroak gobernu batzordeko kideei jakinaraziko zaizkie, udalaren eta Partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda aipatuko da, eta ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deialdia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahalko da, eta epe egokiaren zenbaketa igorpena egiten den egunaren hurrengotik hasiko da.

22. artikulua. Gobernu batzordearen jardunbidea

1. Gobernu batzordearen bilkurak baliozkoak izan daitezen, ezinbestekoa izango da kideen erdia eta bat gehiago bertan izatea. Nolanahi ere den, beharrezkoa da gobernu batzordeko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

Bigarren deialdian –bilkuraren bigarren deialdia, gutxienez, lehenengo deialdia egiten denetik ordu erdira egin behar da–, nahikoa izango da guztizko boto haztatuaren herena osatzen duten kideak bertaratzea, kideen kopurua gorabehera. Nolanahi ere den, beharrezkoa da gobernu batzordeko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

2. Arau orokor legez, gobernu batzordearen erabakiak botoa emateko eskubidea duten bertaraturakoen boto haztatuen baturaren gehiengo soilez hartzen dira, horien guztien boto haztatuak batzar nagusian daukan balioa gorabehera.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan, toki erakundeetako kide anitzeko organoen jardunbideari buruzko araudietan xedatzen dena aplikatuko zaio gobernu batzordeari.

23. artikulua. Gobernu batzordearen eskudantziak

1. Gobernu batzordearen eskudantziak ondokoak dira:

a) Kontratuak izapidetzeko eta esleitzeko baldintza agiriak onartzea, lehendakariak dituen eskudantzietan ezarritako mugen gainetik.

b) Obra proiektuak onartzea.

c) Hornidura eta saneamenduko zerbitzuen prestazioari dagokionez, planak eta jarduketa programak batzar nagusira helarazte, hark onar ditzan. Salbuespenez, presako eta arrazoizko zioak direla eta, halakoak onartu ahal izango ditu, eta horren berri eman beharko du harrezkero egiten den lehen batzar nagusian.

d) Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, eta ordainsari osagarrien zenbateko osoa finkatzea, indarrean dauden legeek ezarritako gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak aintzat harturik.

e) Aurrekontu proiektua onartzea, batzar nagusiak behin betiko onar dezan igorri baino lehen.

f) Zerbitzuen kostuari buruzko azterketak eta horien errendimenduari buruzko ebaluazioa onartzea.

g) Egintza administratiboak eta judizialak egikaritzea gobernu batzordearen eskumeneko gaietan edo, bestela, presako zioak direla eta, nahiz eta batzordearen eskumenetik kanpokoak izan. Halakoetan, azkenekoen berri eman beharko dio batzar nagusiari harrezkero egiten den lehen bilkuran.

h) Indarrean dagoen legerian edo indarrean dauden estatutuetan batzar nagusiari berariaz eratzikitako beste eskudantzia guztiak egikaritzea, edo batzar nagusiak beren beregi gobernu batzordearen esku uzten dituen eskumenak egikaritzea.

24. artikulua. Lurralde batzordeak

1. Gobernu batzordeak eta batzar nagusiak hartu beharreko erabakiak aztertu, kontsulta egin eta irizpena emateko organoak dira lurralde batzordeak.

2. Batzar nagusian ordezkariak duten kuadrillak beste lurralde batzorde eratu daitezke, betiere kuadrilla bakoitzeko lurralde eremuan jarduten duten bost tokiko erakunde, gutxienez, partzuergoko kide badira. Bestela, tokiko erakundeek hurbileneko kuadrillaren lurralde batzordean parte hartuko dute.

3. Batzordeen osaera ondokoa izango da: dena delako lurralde eremuan partzuergoko kide diren toki erakunde guztietako kide bana eta Arabako Foru Aldundiko kide bat –erakundeek izendatuta eta erakundeen ordezkarietan–.

4. Kide guztien artetik, bertaratutako gehiengo soilez, lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dira, baina foru ordezkaria ezin izango da hautatu. Azkenak kalitate botoa izango du berdinketa gertatuz gero.

5. Kideen kargua lau urterako izango da eta, hala badagokio, korporazioa berritzen denean iraungiko da. Halako inguruabarretan, partzuergoan jarduten duten ordezkariak jardunean jarraituko dute behin-behinekotasunez, harik eta partzuergoaren organo eskumendunak horien ordekoak izendatu arte.

25. artikulua. Lurralde batzordeen bilkurak

1. Lurralde batzordeen bilkurak hiru motatakoak izan daitezke: ohikoak, ezohikoak eta presako bilkura ezohikoak.

2. Lurralde batzordeak, gutxienez, sei hilerik behin batzartuko dira, lehendakariaren ekimenez deitutako ohiko bilkuran.

3. Lurralde batzordeek egokiesten dituzten ezohiko bilkura guztiak egin ahalko dituzte, lehendakariaren ekimenez edo guztizko botoen herena osatzen duten dena delako lurralde batzordeko kideen idatzizko eskariz.

4. Zuzendari kudeatzaileak eta idazkariak bilkuretan parte hartuko dute, hitzarekin baina botorik gabe.

5. Batzordea osatzen duten kideen gehiengo osoz, lurralde batzordeak jardunbideari buruzko barne araudia onartu ahal izango du.

26. artikulua. Lurralde batzordeen deia eta aztergaien zerrenda

1. Lurralde batzordeen bilkura bakoitzaren deia behar besteko aurrerapenez egin behar da. Bilkurarako deia egiten denetik bilkuraren egunera arte, gutxienez, bost egun baliodun igaro behar dira, presako bilkura ezohikoetan izan ezik, ordezkari guztiek bileran landu beharreko gaiak aztertu ahal izan ditzaten.

2. Deialdia, aztertuko diren gaien zerrenda eta onartu beharreko aurreko bilkuren akten zirriborroak lurralde batzordeetako kideei jakinaraziko zaizkie, udalaren eta partzuergoko erakundeetako gainerako organoen bidez, haiek beren ordezkariari helaraz diezazkieten. Hala, betetzat joko da jakinarazpena egiaztatzeko betekizuna.

3. Deian, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda aipatuko da, eta ohartaraziko da espedienteak eta dokumentuak ordezkarien eskura egongo direla deialdia igortzen den egunetik aurrera.

4. Deia bitarteko telematikoak erabiliz egin ahalko da, eta epe egokiaren zenbaketa igorpena egiten den egunaren hurrengotik hasiko da.

27. artikulua. Lurralde batzordeen jardunbidea

1. Lurralde batzordeen bilkurak baliozkoak izan daitezten, ezinbestekoa izango da batzordea osatzen duten kideen erdia eta bat gehiago bertan izatea. Nolanahi ere, beharrezkoa da batzordeko lehendakaria eta idazkaria edo haiek legez ordeztzen dituztenak bertan izatea.

Bigarren deialdian –bilkuraren bigarren deialdia, gutxienez, lehenengo deialdia egiten denetik ordu erdira egin behar da–, nahikoa izango da lehendakaria, idazkaria eta beste kide bat gehiago bertaratzea.

2. Arau orokor legez, lurralde batzordeen erabakiak botoa emateko eskubidea duten bertaratutakoen boto haztatuen baturaren gehiengo soilez hartzen dira, horien guztien boto haztatuak batzar nagusian daukan balioa gorabehera.

3. Estatutu hauetan arautzen ez diren kasuetan, udalaren informazio batzordeen jardunbideari buruzko araudietan xedatzen dena aplikatuko da.

28. artikulua. Lurralde batzordeen eskudantziak

Lurralde batzordeen eskudantziak ondokoak dira:

1). Kuadrillaren eragin eremuan, obrak edo jarduketak egin daitezten proposatzea, bai eta obra eta jarduketan hurrenkera ezartzea.

2). Gobernu batzordeari mota eta era guztietako proposamenak helaraztea dena delako kuadrillan eskaintzen den zerbitzuaren prestazioari dagokionez.

3). Partzuergoko beste organo batzuek proposaturiko jarduketei buruzko iritzia ematez –jarduketa horiek zuzenean (era eskusiboan ala ez-esklusiboan) eragiten badiote lurralde batzordea kasuan-kasuan osatzen duten lurralde eremuan ematen den zerbitzuari–.

4). Partzuergoko kide diren toki erakundeetako solaskideak izatea, esandako erakundeek egindako proposamenak, kexak edo erreklamazioak aztertzea eta txostena egin eta iritzia ematea, organo eskumendunak erabakia hartu baino lehen.

5). Batzordeko lehendakariaren bidez, gobernu batzordean parte hartzea, lehendakaria batzordeko kidea baita.

6). Hala badagokio, horniduraren behe sarean egitekoak diren proiektuen hurrenkera ezartzea, kasuan-kasuan, lurralde batzordea osatzen duten erakundeen lurralde eremuan.

7). Batzar nagusiak edo gobernu batzordeak beren beregi lurralde batzordearen esku utzitako zeregin guztiak betetzea.

29. artikulua. Partzuergoko lehendakaria eta lehendakariordea

1. Batzarrak hautatuko ditu, bertako kide direnen artetik, zuzeneko bozketa bidez.

2. Batzar nagusiko kide guztiak lehendakarigaiak dira. Batzarreko ordezkari bakoitzak hautagai bakarrari emango dio botoa. Boto paperean, hautatu duen hautagaiaren izen-abizenak idatzi beharko ditu.

3. Boto gehien lortzen duen hautagaia lehendakari izendatuko da, baldin eta boto kopurua botoa emateko eskubidea duten batzar nagusiko legezko kideen gehiengo osoarena bada. Legez eskatzen den gehiengoa lortzen ez bada, bozketa berriro egingo da, eta boto gehien lortzen duen hautagaia izendatuko da lehendakari. Bigarren bozketan berdinketa gertatuz gero, boto kopuru berdina jaso duten hautagaien artetik, gazteena izendatuko da.

4. Bestetik, lehendakariorde izendatuko da boto haztatu gehien lortu duen bigarren hautagaia. Berdinketa gertatuz gero, boto kopuru berdina jaso duten hautagaien artetik, gazteena izendatuko da.

5. Edozein kasutan, partzuergoko kide diren erakunde desberdinetako ordezkariak izan behar dute lehendakari eta lehendakariorde. Hala ere, erakunde berekoak badira, boto gehien ortu duen hurrengo hautagaia izendatuko da lehendakariorde.

6. Lehendakari eta lehendakariorde hautatuek izendapen horren arabera jardungo dute karguan, batzar nagusian nahiz gobernu batzordean eta kargu horiek bateraezinak izango dira lurralde batzorderen bateko lehendakariaren edo lehendakariordearen karguekin.

30. artikulua. Lehendakariaren eskudantziak

Lehendakariaren eskudantziak ondokoak dira:

a) Batzar nagusiaren eta gobernu batzordearen bilkurak deitzea, bilkuretan buru aritzea, bilkurei amaiera ematea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak kalitateko botoaren bidez ebaztea.

b) Batzar nagusiaren eta gobernu batzordearen erabakiak betearaztea.

c) Partzuergoaren ordezkari ofiziala izatea; eskriturak, dokumentuak eta polizak izenpetzea; eta, behar denean, partzuergoa ordezkatu eta defendatzen duten prokuradoreei eta abokatuak botereak esleitzea.

d) Partzuergoari esleitutako obrak eta zerbitzuak zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea, horretarako, erabaki egokiak hartuta.

e) Gastuak egiteko baimena ematea eta gastuak onartzea, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritako muga barruan eta, gehienez ere, guztizko aurrekontuaren ehuneko hamarra gaindituta.

f) Betebeharrak onartzea eta ordainketak agintzea, aurrekontuaren likidazioari buruzko kontuak ematea eta erakundearen kontu orokorra prestatzea.

f) Partzuergoko langile guztien buru nagusia izatea. Halaber, ezarritako probak gainditzen dituzten lan kontratueko eta behin-behineko langileak izendatuko ditu.

h) Partzuergoaren presako auziei lotutako neurriak bere kabuz onartzea, bere erantzukizunpean eta batzar nagusiak edo gobernu batzordeak emandako jarraibideen baitan. Halakoe-tan, hartutako neurrien berri emango dio batzar nagusiari edo gobernu batzordeari harrezkero egiten den lehen bilkuran.

g) Egintza administratiboak eta judizialak egikaritzea bere eskumeneko gaietan edo, bestela, presako zioak direla eta, Halakoetan, egintzen berri eman beharko dio batzar nagusiari harrezkero egiten den lehen bilkuran.

i) Zerbitzuen kostuari buruzko azterketak eta horien errendimenduari buruzko ebaluazioa egitea, gero batzar nagusiak onar ditzan.

k) Aurrekontuen proiektua prestatzea eta gobernu batzordeari helaraztea, onar dezan, batzar nagusiak behin betiko onartu baino lehen.

Lehendakariak zuzendari kudeatzailearen esku utzi ahalko ditu eskudantzia guztiak, a), g), h) eta i) ataletan jasotakoak izan ezik.

31. artikulua. Lehendakariordearen eskudantziak

Lehendakariordeari dagokio lehendakariaren eginkizun guztietan jardutea azkena kanpoan, gaixorik edo ezinduta dagoenean, bai eta lehendakariaren kargua hutsik dagoenean ere.

32. artikulua. Zuzendari kudeatzailea

1. Partzuergoaren batzar nagusiak izendatu eta bereiziko du zuzendari kudeatzailea, haren araubide eta lan baldintzak zehaztuko ditu eta bete beharreko eginkizunak finkatuko ditu.

2. Zuzendari kudeatzaileak ondoko eginkizunak beteko ditu:

a). Partzuergoaren zerbitzuak zuzendu eta horien buru jardungo du.

b). Egokiesten dituen neurri guztiak proposatuko dizkie zuzendaritza batzordeari eta lehendakariari, partzuergoaren jardunbide ona bermatzeko eta erakundearen helburuak egoki betetzeko.

c). Partzuergoaren organoen erabakiak eta ebazpenak betearaztea eta organo horiek zuzendariaren esku uzten dituzten eginkizunak bere gain hartzea.

d). Ordainketa egokiak egiteko agintzea, aurrekontua gauzatzeko oinarrietan ezarritakoari jarraiki.

e). Partzuergoaren gobernu organoek aztertu, jakin, igorri eta onartu behar dituzten gai eta agiri guztiak prestatu, batu eta antolatzea.

f). Gobernu organoen bilkura eta bileretan parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe.

g). Agiriak izapidetzea eta egindako eragiketa eta zerbitzuen erregistroak eta estatistikak eraz egin daitezen jagotea.

h). Ekitaldia amaitzean, partzuergoaren kudeaketaren garapena azaltzen duen oroitzatxostenaren gobernu batzordeari bidaltzea.

i). Zuzendari kudeatzailearen ardurapean edo haren esku uzten diren gainerako eskudantziak bururatzeko.

33. artikulua. Organo osagarriak

1. Partzuergoaren organo osagarriak ere egon daitezke, eta batzar nagusiak onartuko du haien osaera. Honako hauek dira:

a). Kontuen batzorde berezia. Batzorde horrek urteko kontuen berri emango du organo eskumendunari helarazi baino lehen, hark onar ditzan.

b). Kontratazio mahaia edo izen baliokideren bat daukan organoaren eginkizun nagusia kontratazio organoari laguntzea da; horretarako, eskaintzak balioetsiko ditu eta eskaintzarik abantailatsuenaren alde egiteko proposamena bidaliko esandako organoari. Kontratazio mahaia egindako proposamena ez da loteslea izango, baina organoak erabakia arrazoitu beharko du, mahaia egindako proposamenarekin bat ez badator.

2. Legezko manuetan edo honako estatutu hauetan berariaz arautzen ez den guztiari gogokiola, toki araubideari buruzko legeriak halako organoentzat xedatzen dituenak aplikatuko zaizkie era subsidiarioan organo osagarriei.

III. KAPITULUA: PARTZUERGOAREN OGASUNA

34. artikulua. Partzuergoaren ogasuna

1. Honako baliabide hauek eratuko dute partzuergoaren ogasuna:

a) Uraren ziklo integralari lotutako zerbitzuak ustiatzearen ziozko mota guztietako sarrerak.

b) Partzuergoko kide diren erakundeek, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, estatuko gobernuak eta Europako gobernuak egindako ekarpenak.

c) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru laguntza edo dohaintzak.

d) Kreditu eragiketen ziozko sarrerak.

e) Ondareak ekarritako diru sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainontzeko guztiak.

f) Zuzenbidean bidezkoak diren beste zeinahi sarrera, hala badagokio, zehapenen ordainketaren ziozkoak ere aintzat hartuta.

2. Betebeharrezkotasunez, partzuergoko kide diren udalek eta kontzejuek eta zerbitzuaren hartzaileek ekarpenak egin ditzatela eska dezake erakundeak, aurreko atalean jasotako diru sarrerak nahikoak ez direnean, batzar nagusiaren erabakia dela bide, botoa emateko eskubidea duten eta batzar nagusira bertaratu diren kideen botoen bi herenek horren aldeko botoa ematen badute. Kasu horretan, zerbitzuaren hartzaile diren erakundeek ekarpenen heina batzar nagusian duten boto haztatuaren proportziozkoa izango da.

35. artikulua. Tarifak

Hornikuntza eta saneamenduko zerbitzuen ziozko tarifak ezartzerakoan, guxtienez, ondokoak kontuan hartuko dira: lehen ezarpenaren finantza gastuak; zuzeneko zein zeharkako ustiapen, zaintza eta mantentze kostuak; etorkizunean hedapenak egiteko helburuz, erreserba bat sortzeko ezar daitezkeen kuotak; eta partzuergoaren kredituetatik edo partzuergoko kide diren erakundeen ekarpenen ziozko finantza gastuak.

36. artikulua. Tarifak ezartzeko irizpideak

Partzuergoak erabiltzen dituen tarifak finkatze aldera, arrazoitutako beste ziorik egon ezean, honako irizpide hauek aintzat hartuko dira:

a) Nahikotasuna: zerbitzuari finantza autonomia emateko moduan kalkulatu da tarifen zenbatekoa.

b) Gehikortasuna: gehien kontsumitzen duenak gehiago ordaindu beharko du.

c) Berdintasuna: zerbitzu berdina hartzen duten partzuergoko kide diren toki erakundee-tako erabiltzaileek tarifa berdina ordaindu beharko dute. Tarifa bera aplikatuko zaie partzuergoko kide diren erakunde guztiei, haiei eskaintzen zaien zerbitzuaren arabera.

d) Banakakotasuna: aleko prezioa ezarriko da kontsumitzen den unitate bakoitzeko.

e) Tarifak ezaugarri bereziko esparru edo arloen arabera egokituko dira.

37. artikulua. Tarifak ezartzea

1. Partzuergoaren helburuetako bat dugu tarifek zerbitzuaren guztizko kostua estaltzea. Hori horrela, tarifak ezarri eta pixkanaka-pixkanaka gehitu ahal izango dira partzuergoak adosten duen egunetik aurrera.

2. Partzuergoak ematen dituen zerbitzu guztien ziozko tarifak erakundeak berak ezarriko ditu, tarifaren izaera dela eta, partzuergoak haren gaineko eskumenik ez daukanean izan ezik. Halakoetan, partzuergoko kide diren erakundeek halabeharrez onartu beharko dituzte partzuergoak ondorio horietarako proposatzen dituen tarifak.

38. artikulua. Administrazio kudeaketako unitatea

1. Jarduteko abiaburu legez, erabiltzailearekiko administrazio kudeaketako unitatea ezarriko da. Faktura edo ordainagiri bakarra erabiliko da eta bertako kontzeptuak banatuko dira erabiltzaileari ematen zaizkion zerbitzuen arabera.

2. Partzuergoak erabiltzaileari uraren horniduraren zioz aplikatuko dizkion tarifetan, ondoko hauek aintzat hartuko dira: lehen mailako sareko horniduraren prezioa, banaketa gastuak eta tarifetako gainerako kontzeptuak, behe horniduraren sareko galerak ere bai.

3. Partzuergoak berak zein partzuergoko kide diren erakundeek tarifak kontratu ahalko dituzte eta abonatuak kudeatu. Azken kasu horretan, partzuergoko kide diren erakundeek eta bertako erabiltzaileek hartutako zerbitzuen ziozko zenbatekoa ordaindu beharko diote partzuergoari, batzar nagusiak ezarritako epean.

4. Arabako Foru Aldundiak, partzuergoak eskatuta eta horren mesedetan, zerga itunduetan partaidetza duten toki erakundeei dagozkien diruzko ekarpenetatik zati bat jasotzeko baimena izango du, tarifak benetan ordaintzeko helburuz, bai eta estatutu hauen 34.2 artikulua arabera ezinbestean egin beharreko dituen ekarpenetatik zati bat jasotzeko ere.

39. artikulua. Emaidza ekonomiko positiboaren erabilera

Partzuergoaren jardueraren ondorioz sortzen diren emaitza ekonomiko positiboak ezin dira, inola ere, partzuergoa osatzen duten erakundeen artean banatuko. Emaidza horiek baliatuko dira beti tarifen igoera arintzeko edo tarifak txikiagotzeko edo, bestela, erreserbako funtsak eratzeo, hobekuntzak eta/edo inbertsioak egiteko helburuz.

IV. KAPITULUA: ONDAREA

40. artikulua. Partzuergoaren ondarea

1. Partzuergoaren ondarea ondokoek osatzen dute: erakundearen helburuak betetzeko xedez, partzuergoko kide diren erakundeek transferitutako aktiboak, ondasunak eta eskubideak, bai eta partzuergoak bere funtsak erabiliz eskuratutakoak edo zeinahi modutan eskuratutakoak ere, Zuzenbidean bidezkoa den eran.

2. Inbentario zehatza egin ondotik, Arabako Foru Aldundiak partzuergoari transferitu ahal dio hornidura eta saneamendu sareei lotutako edo horien eraginpeko zeinahi ondasun edo eskubide –zati batez edo osorik–. Kasurako, honako hauek (ondoko zerrenda ez da zehatza, ezta itxia ere): iturburuak, ur emakidak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, eraikitako hoditeria eta eraikitzen ari dena, araztegiak, kolektoreak, putzuak, andelak, igotzeko ekipoak, linea elektrikoak eta gainerako instalazioak, bitarteko materialak eta proiektuak.

3. Era berean, inbentario zehatza egin ondotik, partzuergoko kide diren erakundeek partzuergoari transferitu ahal dio hornidura eta saneamendu sareei lotutako edo horien eraginpeko zeinahi ondasun edo eskubide–zati batez edo osorik–. Kasurako, honako hauek (ondoko zerrenda ez da zehatza, ezta itxia ere): iturburuak, ur emakidak, eraikitako edo eraikitzen ari diren urtegiak, eraikitako hoditeria eta eraikitzen ari dena, araztegiak, kolektoreak, putzuak, andelak, igotzeko ekipoak, linea elektrikoak eta gainerako instalazioak, bitarteko materialak eta proiektuak.

4. Partzuergoak bere gain hartuko ditu eraketa unean hitzartutako kreditu eragiketarik itzultzeko xedez sortzen diren urteko kuotak, bai eta erakundearen indarraldian hitzartzen direnak ere, horien helburua bada lehen mailako sarearen azpiegiturari dagozkion obrak finantzatzea, andelak eta urtegiak eraikitzea edo partzuergoaren helburuei lotutako beste edozein jarduketa finantzatzea, hala erabakiz gero.

V. KAPITULUA: LANGILEAK

41. artikulua. Langileak

1. Partzuergoaren zerbitzuko langile berriak funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak izan ahalko dira, eta partzuergoan parte hartzen duten administrazioetakoak baino ez dira izango. Atxikita dauden administrazio publikoaren araubide juridikoa izango dute langileek, eta haien ordainsaria ezin da inola ere izan antzeko lanpostuentzat ezarritakoa baino handiagoa izan.

Salbuespenez, partzuergoan parte hartzen duten administrazioetako langilerik ezin badute hartu bete beharreko eginkizunak bereziak direlako, partzuergoa atxikita dagoen administrazioaren organo eskumendunak baimena eman ahalko du partzuergoak langileak zuzenean kontratatzeke, aipatutako eginkizun horietan aritu daitezten.

42. artikulua. Idazkaria

1. Partzuergoko idazkariak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Batzar nagusian eta gobernu batzordean parte hartzea.

b) Gobernu organoen egintza eta erabaki guztien fede ematea.

c) Gobernu organoei aginduzko lege aholkularitza ematea.

d) Partzuergoaren posta eta agiri guztiak izapidetu eta artxibatzea, aldeztatik lehenak aurrerik jakinda eta hala erabakita.

e) Toki araubideari buruzko legeriak toki erakundeetako idazkariaren lanpostuari ezarritako gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Idazkariaren lanpostua sortu bitartean edo indarrean dagoen legeria betez, lanpostua esleitzen ez den artean, batzar nagusiak hautaturiko pertsonaren batek bete ahalko du lanpostua.

43. artikulua. Kontu hartzailea

1. Partzuergoko kontu hartzaileak aholkularitzari eta kudeaketa ekonomikoari atxikitako kontularitza eginkizunak gauzatuko ditu, batez ere, honako hauek:

a) Lehendakariari aholkularitza ematea edo, eskumenak eskuordetzan emanda daudenean, zuzendari kudeatzaileari aholkularitza ematea, aurrekontu arruntaren eta aurrekontu berezien aurreproiektuak prestatzeko.

b) Partzuergoaren kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea eta erakundearen kontularitza kudeatzea.

c) Oro har, indarrean dagoen legeriak kontu hartzaileentzat ezarritako eginkizunak betetzea.

2. Kontu hartzailearen kargua betetzeko izendapenari dagokionez, idazkariaren kargua betetzeko xedez aurreko artikuluan adierazitako baldintzak aintzat hartuko dira.

3. Pertsona bakarrak bete ahalko ditu idazkariaren eta kontu hartzailearen eginkizunak.

VI. KAPITULUA: KIDEAK ATXIKITZEA ETA BEREIZTEA**44. artikulua. Kide berriak atxikitzea**

1. Partzuergoa eratu ondoren, erakundeari atxiki nahi zaion zeinahi udal, kontzeju edo entitatek atxikitzeko eskaera egin beharko du, lehendakariari bidalitako idazkiaren bidez. Agiri horrez gain, udalaren edo kontzejuaren osoko bilkurak edo erakundearen antzeko organoak hartutako erabakiaren ziurtagiria igorri beharko da, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzak eta gehiengoak beteta.

2. Partzuergoari atxikitzeko eskaerak jendaurrean paratuko dira, batzar nagusiaren deia jasotzen denetik batzarra egiten denera igarotzen den epean.

3. Partzuergoaren batzar nagusiak onartutako kide berriek egin beharreko ekarpen ekonomikoak edo ondarezkoak batzar nagusiak berak ezarriko ditu, kidearen atxikipena onartzeko erabakian. Era berean, batzar nagusiak erabaki beharko du kide berriak zenbateko ekarpen arrunta egin beharko duen aldizka, partzuergoak ematen dituen zerbitzuak mantentzearen zioz.

45. artikulua. Kideak borondatez bereiztea

1. Partzuergoko kide diren erakundeak edozein unetan bereiz daitezke partzuergotik, udalaren osoko bilkurak edo kontzejuaren organo eskumendunak hala erabakita, legez bete behar diren quoruma eta gehiengoak beteta. Beste alde batetik, bereizketa bidezkoa izango da udal edo kontzeju bat partzuergoak ematen dituen zerbitzuen hartzaile izateari uzten dionean.

2. Partzuergotik bereizteko erabakia jendaurrean paratuko da hilabeteko epean.

3. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desegitea eragingo du. Nolanahi ere, gainerako kideek, estatutu hauetan araututako betez, partzuergoa ez desegitea erabaki ahal izango dute, baldin eta gutxienez bi administrazioek kide izaten jarraitzen badute, edota administrazio baten baino gehiagoren mendeko bi erakunde edo organismo publikok hala erabakitzen badute.

4. Partzuergoa uzteko eskubidea baliatzeak partzuergoa desegitea eragiten ez duenean, arau hauek aplikatuko dira:

a) Uzteko eskubidea baliatzen duenari zenbateko uzte kuota dagokion kalkulatu da. Horretarako, partzuergoa likidatuz gero legokiokeen ondare garbiaren saldoaren partaidetza hartuko da aintzat, estatutuetan xedatutako banaketa irizpidea kontuan hartuta.

Likidazio kuotarik zehazten ez bada, honako hauek hartuko dira kontuan: uzteko eskubidea baliatu duenak partzuergoaren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa eta urtez urte emandako finantzaketa. Partzuergoa uzten duen kideak ekarpenik egin ez badu, horretarako betebeharririk ez zuelako, banaketa irizpidea haxe izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jasoz gero.

Partzuergoak erabakiko du uzte kuota nola eta zer baldintzatan ordainduko den, kuotaren emaitza positiboa bada, bai eta uzteko eskubidea baliatzen duenari dagokion zorra nola eta zer baldintzatan ordainduko den ere, kuotaren emaitza negatiboa bada.

Partzuergotik bereizteko egintza uzte kuota zehaztu ondoren gauzatuko da, baldin eta kuota hori positiboa bada edo, bestela, zorraren guztizko zenbatekoa ordaindu ondoren (edo ordainketa hitzartu ondoren), kuota negatiboa bada.

b). Batzar nagusiak hartuko du uzte kuotaren zenbatekoa ezartzeko erabakia, botoa emateko eskubidea eta batzar nagusian bertaratu direnen boto haztatuen gehiengo soila dela bide, erabakia erakunde interesdunari era ofizialean jakinarazi eta gero.

b) Legeak xedatutakoari jarraiki, baldin eta partzuergoa uzteko eskubidea baliatu duen administrazioari atxikita badago, partzuergoak erabaki beharko du, partzuergoan geratzen direnen artean, zer administrazioari edo administrazio bati lotutako edo haren mendeko zer erakunde edo organismo publikori atxikiko zaion, legean ezarritako irizpideak betez.

46. artikulua. Kideak ezinbestean bereiztea

1. Batzar nagusiak, botoa emateko eskubidea duten batzar nagusiko kideen boto haztatua- ren bi herenen aldeko botoa dela bide, gutxienez, kide guztien erdiak boto emanda, ondorio horretarako deitutako ezohiko bilkuran, partzuergotik bereizi eta baztertu ahalko du inguruabar hauetakoren batean erortzen diren erakundeak:

a. Partzuergoaren interes ekonomiko eta funtzionalei edo partzuergoaren irudiari kalte larria eragitea, jokabide maltzurrez edo zabarkeriaz eragin ere.

b. Ez jardutea edo aurka jardutea eta, horren ondorioz, partzuergoak lege ezarritako bete- beharrak betetzeko proposamenak eta erabakiak har ditzan galaraztea.

c. Gobernu eta administrazio organoek hartutako erabakiak edo haiek agindutakoak behin eta berriz ez betetzea.

2. Ezinbesteko bereizketari buruzko erabakia batzar nagusiari helarazi baino lehen, gobernu batzordeak, legeko kideen gehiengo osoa dela bide, ezinbestean bereizteko espedientea hasarazteko erabaki arrazoitua hartu beharko du.

3. Bereizteko proposatzen den erakundeari jakinarazi beharko zaio gobernu batzordearen erabakia, hoguei eguneko epean, egokitzen jotzen ituen alegazioak edo proposamenak egiteko modua izan dezan.

4. Aipatutako epea amaituta, espediente osoa jarriko da partzuergoko kide diren erakunde guztien eskura, eta horiek guztiek egokitzen jotzen dituzten alegazioak eta/edo proposamenak egin ahal izango dituzte.

5. Zerbitzu teknikoek espedientearen eta bertan txertaturiko idazki eta agirien berri azalduko dute.

6. Egindako guztiak aintzat hartuta, gobernu batzordeak erabaki beharko du espedienteari heltzen dion eta, hala badagokio, batzar nagusiari helaraziko dion, hark onar dezan edo, bestela, prozedura bertan behera utzi eta espedienteari amaiera eman. Lehen erabakia baliozkoa izan dadin, legeko kideen gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

7. Batzar nagusiak partzuergoko kide den erakunderen baten ezinbesteko bereizketa eta kanporatzea erabakitzen badu, -partzuergoak hartutako kalte-galerak konpontzeko edo haiek ordaintzeko erakunde horren aurka egikaritu ditzakeen egintzei kalterik egin gabe-, aurreko artikulua 3. eta 4. ataletan ageri diren baldintzei jarraiki jardungo du partzuergoak.

VII. KAPITULUA. ESTATUTUAK ALDATZEA

47. artikulua. Estatutuak aldatzea

1. Lehendakariari, partzuergoan parte hartzen duten erakundeei, gobernu batzordeari eta batzar nagusiari dagokio estatutuak aldatzeko proposamena egitea.

2. Estatutuak aldatzeko proposamenak aldaketaren arrazoiak jaso beharko ditu eta, halaber, aldatu edo txertatu nahi diren manuen testua eta indargabetu nahi direnena eta, proposamena parte hartzen duten erakundeek aurkeztuz gero, gutxienez bost erakundek bermatu beharko dute, guztizko boto haztatuen ehuneko hamarrekoa edo handik gorakoa ordezkatuta.

3. estatutuak aldatzeko proposamena eta aipatutako edukia partzuergoko kide diren erakunde guztiei bidaliko zaie, haiek alegazioak eta/edo hautazko proposamenak egiteko modua izan dezaten hilabeteko epean. Ildo beretik, entzunaldi publiko orokorraren izapidea bideratuko da hilabeteko epean, iragarkiak jarrita erakunde bakoitzaren oholetan, ALHAOn argitaratuta eta hedapen gehien daukan egunkarietako batean argitaratuta. Era berean, partzuergoaren webgunean argitaratuko da iragarkia.

4. Arestian esandako epea igarota, zerbitzu teknikoek alegazio eta/edo proposamenen berri emango dute.

5. Aurreko ataletan azaldutako eginbideak bururatuta, gobernu batzordeak bozkatu egingo du estatutuak aldatzeko proposamen zehatz baten inguruan bozkatu eta batzar nagusiari helaraziko dio.

6. Estatutuak aldatzeko, botoa emateko eskubidea duten batzar nagusiko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoa beharko da eta, gutxienez, bost kidek eman beharko du aldeko botoa. Estatutuak aldatzeko erabakia ondorio horretarako deitutako ezohiko bilkuran hartuko da.

7. Batzar nagusiaren erabakiak artikulua honen 2. lerroaldean adierazitako baldintzak bete beharko ditu.

8. Estatutuak aldatzeko behin betiko erabakia hartu ondotik, estatutu berrien testua ALHAOn argitaratuko da, eta aldaketaren berri jakinaraziko da erregistro ofizial egokietan.

9. Partzuergoak legez daukan nortasun juridiko berezia eta berezia dela eta, partzuergoko kideen gobernu organo eskumendunek estatutuak aldatzeko proposamena gerora berresten edo onartzen ez badute ere, ez da zio nahikorik egongo aldaketak eraginkortasunik ez edukitzeko edo indarrean ez hasteko. Partzuergoko kide diren erakundeek estatutuen aldaketa onartu ezean, erakundeek batzar nagusiko kideen gehiengo kualifikatutakoak erabakitakoarekin bat etorri beharko dira edo, bestela, bidezkoak diren administrazio edo jurisdikzio errekurtsioak jarri beharko dituzte hartutako erabakiaren aurka edo partzuergotik bereizi.

VIII. KAPITULUA: PARTZUERGOA DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

48. artikulua. Desegitea

1. Partzuergoa desegiteko arrazoiak honako hauek dira:

a) Legeak hala xedatzea.

b) Partzuergoko kide diren erakunde guztiek egokitza jotzea.

c) Partzuergoko kide diren erakundeen kopurua nabarmen aldatzea, aldaketa horren ondorioz, gutxienez, administrazio baten mendeko edo hari lotutako bi administrazio, erakunde edo organismo publiko geratzen ez direnean.

d) Partzuergoak jardunean jarraitzea interes publikoaren aurkakoa izatea. Inguruabar horien artekoa dugu partzuergoaren bideraezintasun teknikoa.

e) Partzuergoarekiko eskumen bateragarriak dauzkan beste erakunde baten bategitea, beste erakunde batek xurgatzea edo beste erakunde batean txertatzea.

2. Aipatutako arrazoiren batengatik partzuergoa desegitea erabakiz gero, gutxienez, kideen herenak horri buruzko proposamena eta txostena aurkeztuko dizkio batzar orokorrari, eta bertan azalduko dira desegitearen alde juridiko, ekonomiko eta teknikoak.

3. Batzar nagusiak partzuergo desegiteko proposamena aztertuko du ondorio horretarako deitutako ezohiko bilkuran, eta erabakia hartuko du, botoa emateko eskubidea duten batzar nagusiko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoa dela bide eta, gutxienez, bost kidek eman beharko du aldeko botoa.

49. artikulua. Partzuergoa likidatzea

Partzuergoa deseginez gero, erakundea likidatu eta azkendu egingo da. Partzuergoa zein xedetarako sortu zen eta horiek bete izana izango da desegiteko arrazoia, kasu guztietan.

2. Partzuergoaren gobernu organo gorenak, desegiteko erabakia hartzean, likidatzaile bat izendatuko du. Likidatzaile hori partzuergoa administrazio publiko bati atxikita dagoen eta horrekin lotutako edo haren mendeko organo edo entitate bat izango da.

3. Erakunde edo organo likidatzaile bateko kide gisa, enplegatu publikoari dagokion erantzukizuna zuzenean hartuko du bere gain erakundeak berak edo hura izendatu zuen administrazio publikoak, eta hark ere enplegatu publikoari erantzukizuna eskatu ahalko dio ofizioz doluz, erruz edo zabarkeria larriaz jokatu badu, administrazio legeetan ondare erantzukizunaren inguruan araututa dagoenari jarraiki.

Likidatzaileak estatutuetan xedatutakoa betez kalkulatu du partzuergoko kide bakoitzari dagokion likidazio kuota.

5. Batzar nagusiak kuota hori kalkulatu du, likidazioaren ondoren ateratako ondare garbiaren saldoan dagokion partaidetzaren arabera, kontuan hartuz partzuergoko kide bakoitzak haren ondare funtsari egindako ekarpenen ehunekoa nahiz urtero emandako finantzaketa. Partzuergoko kideren batek ekarpenik egin ez badu, horretarako betebeharririk ez zuelako, banaketa irizpidea hau izango da: partzuergoko kide izan den denboran jasotako diru sarreretan izandako partaidetza, halakorik jaso izanez gero.

6. Partzuergoak erabakiko du likidazio kuota nola eta zer baldintzatan ordaindu beharko den, emaitza positiboa den kasuetan.

7. Botoa emateko eskubidea duten batzar nagusiko legezko kideen guztizko boto haztatuen bi herenen aldeko botoa dela bide eta, gutxienez, bost kidek aldeko botoa emanda, partzuergoko kide diren erakundeek erabaki ahalko dute partzuergoaren aktibo eta pasibo guztiak osorik lagatzea ikuspegi juridikotik egokia den sektore publikoaren beste erakunde bati, jarduerari eusteko xedez eta azkentzen den partzuergoaren helburuak betetzeko helburuz. Aktibo eta pasibo guztiak lagaz gero, partzuergo lagatzailea azkendu egingo da likidaziorik egin gabe.

8. Partzuergoa deseginez gero, partzuergoko kide ziren erakundeek ekarpen moduan utzitako ondasun, instalazio eta eskubideak partzuergoaren helburuetarako izateari utziko diote eta erakunde horien eskuetara itzuliko dira, behar bezala justifikatutako arrazoï berezirik ez badago. Partzuergoaren gainontzeko ondareari dagokionez, batzar nagusiak partzuergoa desegitearen inguruan hartutako erabakian ezarritakoa bete beharko da.

Honako estatutu hauek indarra izango dute ALHAOn argitaratu ondoren eta ondorio horretarako batzartu den batzar nagusiak partzuergoan beste erakunde batzuk sartzea edo hari atxikitzea erabaki ondoren.

Ribabellosan, 2018ko abenduaren 17an

Partzuergoko lehendakaria

PEDRO MARÍA BODEGA SÁENZ DE POBES